



HONDARRIBIKO UDALA

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GORENAK  
BI MILA BEDERATZIKO UZTAILAREN  
HOGEITA BEDERATZIAN EGINDAKO  
EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta bederatziko uztailaren hogeita bederatzian, Udaletxe honetako Batzar Aretoan Udaltzazak Ezohiko Bilkura egin du **Aitor Kerejeta Cid Alkate-Udalburuaren Lehendakaritzapean** eta ondoren aipatzen diren **Alkateordeak** partaide direla: Ion Elizalde Caballero, Juan Maria Altuna Muñoa, J.Xabier Tife Susperregi eta Maite Peláez Arregi Jaunandreak, eta **Zinegotziak**:

Gregorio Berrotaran Etxeberria jn.  
Maria Eufemia (Maiaia) Urrutia Gastesi and.  
Isabel Olazabal Lekuberria and.  
Florencio Arrieta Mendizabal jn.  
Mikel Mariskal Balerdi jn.  
M<sup>a</sup> Luisa Arija Soutullo and.  
Jesus I. Alvarez Yeregui jn.  
Jose Manuel Lizarraga Dorda jn

Ez dira bilkuran izan eta bere ezin etorria adierazi dute Arantzazu Ocio Larrañaga, Miren Legorburu Galaieta eta M<sup>a</sup> Ángeles Santos Prieto Zinegotzi andreak eta Asier Sistiaga Segurado Zinegotzi Jaunak.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa egin dute goizeko 8:30 orduetan, ni, Kattalin Fagoaga Iturralde Andrea, Udaleko Aldiko Idazkaria lagun nautelarik.

Biltzar-buruak bilkura hasi eta Eguneko Zerrendan agertzen diren ondoko gaiak aztertu dira:

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA  
CELEBRADA POR EL EXCMO.  
AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE  
HONDARRIBIA EL DIA VEINTINUEVE DE  
JULIO DE DOS MIL NUEVE.**

En la Ciudad de Hondarribia a veintinueve de julio de dos mil nueve se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el Pleno de la Corporación para celebrar Sesión Extraordinaria, bajo la presidencia del **Sr. Alcalde-Presidente D. Aitor Kerejeta Cid** y con la asistencia de los y las **Tenientes de Alcalde Sres./as.:** D.Ion Elizalde Caballero, D. Juan Maria Altuna Muñoa, D. J. Xabier Tife Susperregi y la y D<sup>a</sup> Maite Peláez Arregi, **y de los Concejales y las Concejales Sres./as.:**

D. Gregorio Berrotaran Etxeberria  
D<sup>a</sup> Maria Eufemia (Maiaia) Urrutia Gastesi  
D<sup>a</sup> Isabel Olazabal Lekuberria  
D. Florencio Arrieta Mendizabal  
D. Mikel Mariskal Balerdi  
D<sup>a</sup> Maria Luisa Arija Soutullo  
D. Jesús I. Álvarez Yeregui  
D. Jose Manuel Lizarraga Dorda

No asisten justificando su ausencia, las Señoras Concejales D<sup>a</sup> Arantzazu Ocio Larrañaga, D<sup>a</sup> Miren Legorburu Galaieta, D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Ángeles Santos Prieto y el Señor Concejal D. Asier Sistiaga Segurado.

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las 8:30 horas, asistidos/as de mí, la Secretaria Accidental, D<sup>a</sup> Kattalin Fagoaga Iturralde.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del Orden del Día:

## **1.-2008KO KONTU OROKORRA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

2008ko Aurrekontuko Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa aztertu da, eta honela osatuta dago:

- a) Egoeraren balantzea ekitaldia ixtean.
- b) Galdu- Irabazien Kontua
- c) Txostena, Finantzaketa-Taula, Aurrekontu Likidazioaren datuen eta Kontabilitate orokorrean adierazitakoen arteko erlazioaren Informazio-Eranskina, eta Zorraren Egoera-Orria barne hartuko dituelarik
- d) Aurrekontuen Likidazioa.

Udal Kontu-hartzaileak 2009ko maiatzaren 28an egindako txostena ikusirik.

Aipatutako Kontu Orokorra ontzat eman eta berori jendaurrean erakutsi eta Udalbatzak ontzat eman dezan proposatuz Ogasun, Kontu eta Ondare Batzordeak 2009ko ekainaren 15ean emandako diktamena ikusirik.

Kontu Orokorraren espedientea 2009ko ekainaren 22ko 114 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Oholean, 2009ko ekainaren 16tik uztailaren 10a bitarte, jendaurrean erakutsia izan ondoren inolako erreklamaziorik jaso ez dela ikusita.

Proposamena eztabaidaturik Alkate jaunak hartu du hitza eta galdetu du ea norbaitek hitz egin nahi duen.

Alvarez jaunak hartu du hitza eta esan du 2008ko Kontuei buruz lan txiki bat egin dutela, eta lan horretatik ondorioztatzen dela ia kontzeptu garrantzitsu guztietan Sarrerak aurreikuspenen gainetik kitatzen direla, eta horren ondorioz

## **1.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DE 2008.**

Examinada la documentación de la Cuenta General del Presupuesto 2008, integrada por los siguientes documentos:

- a) Balance de Situación al cierre del ejercicio
- b) Cuenta de Pérdidas y Ganancias
- c) Memoria que incluye el Cuadro de Financiación, anexo informativo de la relación entre los datos de la liquidación presupuestaria y los reflejados en la Contabilidad General y Estado de la Deuda.
- d) Liquidación de los Presupuestos

Visto el informe emitido por la Interventora Municipal con fecha 28 de mayo de 2009.

Visto, asimismo, el dictamen emitido por la Comisión de Hacienda, Cuentas y Patrimonio el día 15 de junio de 2009, informando favorablemente la referida Cuenta General y proponiendo su Exposición al Público y elevar al Pleno para su aprobación.

Resultando que expuesto al público el expediente de la Cuenta General mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa número 114 de 22 de junio de 2009 y en Tablón de Anuncios Municipales, desde el día 16 de junio de 2009 hasta el día 10 de julio de 2009, no se han presentado reclamaciones.

Sometida a deliberación la propuesta interviene el Señor Alcalde y pregunta si hay alguna intervención.

Toma la palabra el Señor Álvarez y expone que han realizado un pequeño trabajo sobre las Cuentas del 2008, deduciéndose del mismo que los Ingresos se liquidan por encima de las previsiones prácticamente en todos los conceptos

4.387.620 €ko desbideraketa dagoela; horrek eraginda Diruzaintzako Gerakina hazi egin dela aurreko ekitaldiarekiko.

Era berean azaldu du 2008an Aktibo Finantzarioek 1.400.000 € bildu dituztela interes gisa, eta Diruzaintzako Gerakina 2008 urtearen bukaeran onartutako Aurrekontuaren 1,3koa dela; horren ondorioz ekitaldian euro bakar bat sartu gabe 5 milioi euro soberakin izanda buka zitekeela.

Egiazko inbertsioei dagokienez, esan du 2008an %17 burutu dela, eta aurreko urteetako sartutako partidak kontuan izanda, %36,6 exekutatu dela; ondorioz ematen duela Udala ez dela neurri horretako inbertsioak aurrera eramateko gai, eta horrenbestez pentsatu beharko litzatekeela beharrezkoa den inbertsio maila horri eustea, eta hala balitz, baliabide tekniko gehiago sartzeko beharra ote dagoen ikertzea.

Ondoren gogorarazi du 2009an ezargarriak diren Ordenantza Fiskalak aldatzeko, pentsatu zela, kostu gehikuntza, ustezko %5eko KPI gehikuntzaren arabera izango zela, eta 2008a 1,4ko igoyerarekin itxi zela; beraz aurreikusitako KPI eta egiazkoaren arteko aldea 3,6koa dela, eta ondorioz Udalaren Diruzaintzako Gerakina handitu egingo dela berriz ere.

Era berean adierazi du hondarribiarrek jasaten duten Zerga Presioa, 2007rako Foru Aldundiaren datuen arabera, biztanleko 712 €koa dela, hau da Hondarribiaren antzeko udalen batezbestekoaren aldean %34 handiagoa, eta Gipuzkoako udal guztien batezbestekoaren aldean %39 handiagoa.

Ondoren esan du zergak arautzen dituzten arauetan ezarritako gehienezko tasak %71n daudela, eta Estatuko batez bestekoa berriz

importantes, resultando una desviación de 4.387.620 € lo que ha contribuido al incremento del Remanente de Tesorería con respecto al ejercicio anterior.

Igualmente expone que los Activos Financieros durante el año 2008, habiéndose presupuestado una cantidad inferior, han recaudado 1.400.000 € en concepto de intereses y el Remanente de Tesorería al final de 2008, es de 1,3 del Presupuesto aprobado, de lo que resulta que durante el ejercicio sin ingresar un euro, se podría haber acabado el mismo con un sobrante de 5 millones de euros

En cuanto a las inversiones reales, dice que la ejecución del 2008 es del 17%, aunque si se tiene en cuenta las partidas incorporadas de años anteriores la ejecución se eleva a un 36,6%, por lo que parece que el Ayuntamiento no es capaz de gestionar ese volumen de inversiones y por lo tanto habría que considerar si es necesario el mantener ese nivel de inversión, y si así fuera, habría que evaluar la necesidad de incorporar mayores medios técnicos.

Continúa recordando que para la modificación de las Ordenanzas Fiscales aplicables en el ejercicio 2009, se partió del supuesto de que el incremento de costes sería acorde con una previsión de incremento del IPC de un 5%, habiéndose cerrado el 2008 con un incremento del 1,4, por lo que la diferencia del IPC previsto y el real es de 3,6 lo que va a contribuir nuevamente a incrementar el Remanente de Tesorería del Ayuntamiento.

Igualmente manifiesta, que la Presión Fiscal que soportan los ciudadanos de Hondarribia, según datos de la Diputación Foral para el año 2007, es de 712 € por habitante, que es superior en un 34% a la media de los municipios de población similar a la de Hondarribia, y un 39% a la media de todos los municipios de Gipuzkoa.

Continúa diciendo que los tipos máximos establecidos en las normas reguladoras de los impuestos se sitúa en un 71%, mientras que la

%63koa dela, eta Gipuzkoakoa %55koa. Azkenik esan du KPI %0 inguru dagoela, eta Aurrekontu exekuzioa ikusita haien ustez Udalak 2010erako ezarri beharreko Zerga tasaren inguruan hausnartu behar duela, azken urteetan zergak KPIren gaintik hazi baitira, eta ondorioz onuragarria izango litzatekeela hiritarrek haien erosahalmena handitzea zerga presioa jaistearen ondorioz.

Alkate jaunak hartu du hitza eta Alvarez jaunari erantzunez adierazi du Aurrekontuko VI. atalari bakarrik begiratu diola, eta atal horretan %17 bakarrik exekutatu izana "O" faseari dagokiola, baina denek dakitela gaur egungo inbertsio proiektuek denbora bat behar dutela garatzeko bukatu arte, eta hala, Likidazio kopuruak ikusita ageri dela 2008ko ekitaldian burututako obra 5.900.000€koa dela, hau da %37a.

Jarraitu du esanez exekuzioak 2008ko hasierako Aurrekontuko obrak eta aurreko urteetako sartutako Aurrekontuetakoak aurreikusten dituela, izan ere gehienetan ezinezkoa izaten baita inbertsio bat hasten den ekitaldi berean exekutatzea.

Era berean adierazi du "O" faseko datuak aipatu diren bezala Aurrekontuko "D" fasekoak ere aipa zitezkeela, fase honetan administrazio espedienteak izapidetu baitira eta hasiera eman baitzaie, eta "D" faseko datuak 9.500.000€koak direla, hau da %59a.

II, IV eta VII atalei dagokienez "O" faseko exekuzio portzentaia %80, %87 eta %67koa da hurrenez hurren.

Diruzaintzako Gerakinari dagokionez, nahiz eta egia izan abenduaren 31n 32.000.000€koa zela, azken Kreditu Aldaketan txosten bat banatu

media su estrato es del 63% y en Gipuzkoa del 55%. Finalmente menciona que el IPC está en torno al 0%, y viendo la Ejecución Presupuestaria entienden que el Ayuntamiento tiene que reflexionar sobre la Presión Fiscal a establecer para el año 2010, ya que durante los últimos años se ha estado incrementando los impuestos por encima del IPC, por lo que sería bueno que los ciudadanos vieran aumentar su poder adquisitivo a través de una disminución de la Presión Fiscal.

Toma la palabra el Señor Alcalde y respondiendo al Señor Álvarez expone que solamente se ha fijado en el Capítulo VI del Presupuesto, y que el 17 % de ejecución del citado capítulo se refiere a la fase "O", pero que de todos es sabido, que los proyectos de inversión desde el momento en que se inician hasta su ejecución necesitan un tiempo para su desarrollo, y así mirando las cifras de la Liquidación, se ve que la ejecución, es decir, obra realizada durante el ejercicio 2008 asciende a 5.900.000 € que supone un porcentaje del 37%.

Continúa diciendo que la ejecución contempla las obras del Presupuesto Inicial del 2008 y de los Presupuestos incorporados de los años anteriores, ya que una inversión es imposible ejecutarla, en la mayoría de los casos, en el mismo ejercicio en la que se inicia la misma.

Igualmente manifiesta que de la misma manera que se han mencionado los datos de la fase "O", se podrían comentar los de la fase "D" del Presupuesto, la cual supone que los expedientes administrativos ya se han tramitado y el inicio de las obras ya está en marcha, y los datos de la fase "D" se elevan a 9.500.000 € que supone un porcentaje del 59 %.

En cuanto a los capítulos II, IV y VII el porcentaje de ejecución de la fase "O" asciende a 80%, 87% y 67% respectivamente.

En lo que respecta al Remanente de Tesorería, si bien es cierto que a 31 de diciembre ascendía a 32.000.000 €, en la última Modificación de

zen, eta bertan ikusten zen erabilgarria 11.000.000 € zirela. Era berean aipatu du Diruzaintzako gerakina ez dela nahi denerako erabil daitekeen diru kopuru bat, gehiena Inbertsioei lotua dela, beraz ezin litekeela Gastu Arrunta finantzatzeko erabili. Era berean aipatu du Hondarribian datozen urteetarako aurreikusitako proiektuetarako ( Soroeta, Harresiak, Aparkalekua, Bela eskola, Baserritar Etorbidea, Liburutegia, Santa Engrazia, Portua hiritartzea) 50 milioi euro baino gehiago beharko lirakeela.

Aurrekontuak Gastu Arruntekin finantzatu behar dira, eta historikoki hala egin da Udal honetan eta hala jarraitu nahi da, Gobernu ardura duten heinean. Aurrekontua udalak daukanaren baitan egiten da, eta ez eduki lezakeenaren baitan, beraz sarreretakoa desbideraketak, izatekotan, positiboak izatea nahi da.

Zerga Presioari buruz esan du joan den urtean Udal Tasa eta Zergak urrian egindako aurreikuspenen baitan igo zirela, nahiz eta gero egia izan den inflazioa askoz txikiagoa izan dela, baina uste du ez dela 2010erako Zerga Politika proposatzeko unea, une egokia aurtengo urria eta azaroa bitarte izango baita, eta itxuraz Udalaren ekonomi egoera ona bada ere, legealdi honetan 2008 eta 2011 urteen artean seguraski 10 bat milioi gutxiago sartuko direla Sarrera Arruntetan, eta ondorioz ez duela ukatzen zorretan sar daitekeenik. Era berean adierazi du guztien meritua dela Udal honek gaur egun Krediturik ez izatea eta kontuak egoera onean izatea, eta hori gertatu dela sasoi on hauetan Aurrekontu neurtuak egin direlako, inbertsioei zentzuzko eran aurre egiteko moduan.

Alvarez jaunak hartu du hitza eta Alkate

Créditos se repartió un informe en el que se reflejaba que el disponible era de 11.000.000 €. Igualmente menciona que el Remanente de Tesorería no es un dinero que se pueda utilizar en lo que se quiera, la inmensa mayoría está afectado a Inversiones, por lo que no se podría utilizar para la financiación del Gasto Corriente. Continúa diciendo que para los proyectos previstos en Hondarribia para los próximos años: Soroeta, Murallas, Parking, Escuela de Vela, Baserritar Etorbidea, Biblioteca, Santa Engrazia y urbanización del Barrio de la Marina, harían falta más de 50 millones de euros.

Los Presupuestos se tienen que financiar con Ingresos Corrientes, e históricamente, esto es algo que se ha hecho en este Ayuntamiento, y que piensan seguir haciendo mientras tengan responsabilidades de Gobierno. Se hace el Presupuesto en función de lo que se tiene, y no en base a lo que quizás se pudiera tener, por lo que las desviaciones en los ingresos, si los hubiere, se pretende sean siempre positivas.

Respecto a la Presión Fiscal manifiesta que el pasado año se subieron las Tasas e Impuestos Municipales en función de las estimaciones previstas en octubre, si bien es verdad que luego la inflación ha sido muchísimo menor, pero cree que no es el momento de plantear la Política Fiscal para el año 2010, que su momento será en los meses de octubre o noviembre de este año, y aunque aparentemente la situación económica del Ayuntamiento sea buena, en esta legislatura entre los años 2008 y 2011 probablemente se van a ingresar en torno a 10 millones de euros menos de Ingreso Corriente, por lo que no descarta que haya que acudir al endeudamiento. Igualmente manifiesta, que es mérito de todos, que este Ayuntamiento a día de la fecha no tenga ningún Crédito y las cuentas saneadas, lo cual ocurre porque en los momentos de bonanza se han hecho unos Presupuestos, que cree moderados, para poder acometer las inversiones de una manera razonable.

Interviene el Señor Álvarez y respondiendo al Señor Alcalde, manifiesta que con el análisis del

jaunari erantzunez adierazi du 2008ko aurrekontuko balantzea bere horretan aztertuta (2008an zituen datuen arabera) ikusten dela sarreraren atalean aurreikusitakoa baino gehiago sartu dela. Gastuen atalean, aurrekontuan aurreikusitakoa baino gutxiago gastatu da, eta Aurrekontu Exekuzioko datuak ikusita, Pertsonalaren atalean %92 gutxiago gastatu da eta Ondasun Arruntetan %80 gutxiago.

Azaldu du Udalak 2009 urte honetan benetako inbertsioetan 19 milioi baino gehiago erabiliko dituela, horietako 8 milioi hasierako Aurrekontukoak eta beste gainerakoak aurreko urteetako Aurrekontuetatik sartuak; arazoa hau da, Udalak egin nahi duela, baina egiatan zenbaitetan ez dela portzentajeetara iristen, horixe argitu nahi zuen. Era berean azaldu du aurreko egoeran ez zela zergak igo beharrik, eta orain proposatzen duena zera da: berak ez du esango 2010ean zein Zerga Presio ezarri behar den, baina bere ustez ahalegin txiki bat egin beharko litzateke eta Hondarribiarrei Udalak haien patriketan diru gehixeago izango den zantzia eman behar lieke, bi euro besterik ez bada ere; garrantzitsua da, eta Udalak ez du hala ere porrot egingo.

Gerakinaren gaiarekin jarraituz, esan du ikur antzeko zerbait dela, eta diru horrekin eta euro bakarra kobratu gabe Aurrekontu osoa finantza zitekeela, badaki hori teknikoki ezinezkoa dela, baina nolabait egiten den konparazio antzeko bat dela.

Alkate Jaunak hartu du hitza eta Alvarez jaunari erantzunez esan du haiek Aurrekontua ustez irits daitezkeen sarrera batzuen arabera egiten dutela, egiazko oinarria izanik, ez irits litezkeen sarrerekin, horixe gertatu baita Gipuzkoako Udalerrri askotan, eta udalerrri horietan horren ondorioz ez dute 2009ko aurrekontua, Sarrerak baino Gastu handiagoak baitituzte.

balance del presupuesto del 2008 y se refiere a los datos que tenía en 2008 está planteando que si se analiza este balance tal cual, se observa que en el capítulo de ingresos se ha ingresado más de lo que estaba presupuestado. En el tema de gastos se ha gastado menos de lo que estaba presupuestado y se ha gastado menos, y así se refleja con los datos de Ejecución Presupuestaria de un 92 % en el Capítulo del Personal y un 80% en el de Bienes Corrientes.

Expone que el Ayuntamiento se va a encontrar en este año 2009 con mas de 19 millones de Inversiones reales, 8 millones de Presupuesto Iniciales y los que se han incorporado de Presupuestos de años anteriores, que el problema está que este Ayuntamiento quiere hacer, pero la realidad es que a veces no llega a porcentajes, eso es lo que quería constatar. Igualmente manifiesta que en la situación anterior, no había por qué haber subido los impuestos y ahora lo que plantea es que en el 2010 el no va a decir qué tipo de Presión Fiscal tiene que haber, pero cree que habría que hacer un pequeño esfuerzo y dar signos a los ciudadanos de Hondarribia de que el ayuntamiento, está dispuesto a que haya algo más de dinero en sus bolsillos, aunque sean dos euros es importante, y este ayuntamiento no por eso se va a encontrar en la ruina.

Siguiendo con el tema del Remanente, dice que es una especie de símbolo, y que con ese dinero y efectivamente sin haber cobrado un euro se podía financiar todo el Presupuesto, ya sabe que eso técnicamente es imposible, pero es una especie de símil que de alguna forma se establece.

Interviene el Señor Alcalde y respondiendo al Señor Álvarez dice que ellos presupuestan en función de unos ingresos que creen que pueden llegar, con base real, no con los que pudieran llegar, que es lo que ha ocurrido en muchos municipios de Gipuzkoa y eso hace que no puedan tener el Presupuesto de 2009, porque tienen mayores Gastos que Ingresos.

Aurrekontuetan aurreikusitakoa gastatzeko gai ez ote diren kontuari dagokionez, adierazi du gaur egun hasiera emana zaiela Itsas Etxea, Musika Eskola, Santa Maria Atea, Goiko Errota eta beste proiekturen bati.

Jarraitu du esanez ia departamentu guztiek pertsonal gehiago eskatzen dutela, baina frogatu dutena dela gaur egun Udalean dagoen Giza Taldearekin gauza direla proiektu horiek guztiak aurrera eramateko. Zerga Presioari dagokionez esan du Hondarribia askoz garestiagoa dela mantentzen beste zenbait hiri baino, kontuan izan behar dela hiriaren hedapena Mendelutik Itsasargiraino, eta dagoen Biztanle dentsitatearekin, kaleak garbitzea eta argitzea, zaborrak jasotzea edo ura iturrietara bideratzea, argi denez, askoz garestiagoa dela Hondarribian Irungo San Miguel auzoan baino, metro karratuko askoz biztanle gutxiago baititugu; baina horrekin ez dela deus berririk azaltzen ari, zerga presioarekin batera hiri bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak eta biztanle bakoitzaren asetasun maila erkatu behar bailirateke.

Alvarez jaunak hartu du hitza eta esan du berak proposatu eta kritikatzeko duena hau da: azken urte gutxi hauetan Udal honek hiritarrei zergak KPI baino gehiago handitu izana, hau da, azken hiru urte hauetan KPIren ginetik 4 edo 5 puntuko igoera ezarri izana, hori baita egoera.

2008ko Aurrekontuko Kontu Orokorra onartzeko proposamena bozkatu eta onartu da, aldeko bederatzi boto, aurkako bi eta bi abstentziorekin.

**Aldeko botoa eman dute:** Aitor Kerejeta Cid Jn., Ion Elizalde Caballero Jn., Juan Maria Altuna Muñoa Jn., J.Xabier Tife Susperregi Jn., Maite Peláez Arregi And, Gregorio Berrotaran

En cuanto a que no sean capaces de gastar lo presupuestado, manifiesta que a día de hoy están iniciados los expedientes de Itsas Etxea, Musika Eskola, Arco de Santa Maria, Goiko Errota, y alguno más.

Continúa diciendo que casi todos los departamentos piden más personal, pero lo que han demostrado es que con el Equipo Humano que hay hoy en el Ayuntamiento son capaces de llevar todos esos proyectos adelante. Relacionado con la Presión Fiscal dice que Hondarribia es mucho más cara de mantener que otras ciudades, que hay que tener en cuenta la extensión de la ciudad desde Mendelu hasta el Faro, y con la densidad poblacional existente, limpiar las calles, iluminarlas, recoger la basura, llevar aguas al grifo, es mucho más caro en Hondarribia, evidentemente, que en el barrio San Miguel de Irun porque por metro cuadrado tenemos muchísimos menos habitantes, pero que con eso no está descubriendo nada nuevo, que cree que junto a la presión fiscal habría que comparar los servicios que cada ciudad otorga y el nivel de satisfacción de cada vecino.

Interviene el Señor Álvarez y manifiesta que lo que plantea y critica es que en estos tres últimos años este Ayuntamiento haya subido los impuestos a los ciudadanos más que el IPC, es decir, que en estos tres últimos años se ha producido una subida de 4 o 5 puntos por encima del IPC, que ese es el marco.

Sometida a votación la propuesta de aprobación de la Cuenta General del Presupuesto 2008, es aprobada con nueve votos a favor, dos en contra y dos abstenciones.

**Votan a favor:** D. Aitor Kerejeta Cid, D. Ion Elizalde Caballero, D. Juan Maria Altuna Muñoa, D. J.Xabier Tife Susperregi, D<sup>a</sup> Maite Peláez Arregi, D. Gregorio Berrotaran

Etxeberria Jn., Maria Eufemia (Maiaia) Urrutia Gastesi And, Ixabel Olazabal Lekuberria And eta Florencio Arrieta Mendizabal Jn.

**Aurkako botoa eman dute:** M<sup>a</sup> Luisa Arija Soutullo andreak. eta Jesus Ignacio Alvarez Yeregui jaunak.

**Abstenitu dira:** Mikel Mariskal Balerdi eta José Manuel Lizarraga Dorda jaunak.

Horren ondorioz, Udalbatzak gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU:**

2008ko Aurrekontuari dagokion Kontu Orokorra onartzea

**2.-“36. MULIATE” H.E.E.-AN BABES OFIZIALEKO 170 ETXEBIZITZAREN EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

“36.MULIATE” H.E.Ean Babes Ofizialeko 170 Etxebizitza eraikitze, Udal honek eragin eta Joaquin Zubiria Sautu jaun arkitektoak idatziriko Exekuzio proiektua aztertirik.

2009ko ekainaren 26an, Udal Arkitekto jaunak aipaturiko proiektuari buruzko aldeko 93/09 txostena ikusirik.

Hirigintza eta Kultur Ondare Batzordeak, Udalbatzari proiektua onar dezan proposatuz 2009ko uztailaren 7an emandako diktamena ikusirik.

Proposamena eztabaidaturik Alkate jaunak hartu du hitza eta azaldu du Babes Ofizialeko 170 Etxebizitza burutzeko proiektuak 9 soto proposatzen dituela, eta bertan minusbaliatuentzako 7 etxebizitza proposatzen direla, 15 logela bakarrekoak, 82 etxebizitza 2 logelakoak, 62 etxebizitza 3koak, eta 4 etxebizitza 4koak; gainera 171 trastetegi eta 213 aparkaleku proiektatu direla. Horren arabera Obraren Aurrekontu Orokorra 17

Etxeberria, D<sup>a</sup> Maria Eufemia (Maiaia) Urrutia Gastesi, D<sup>a</sup> Ixabel Olazabal Lekuberria y D. Florencio Arrieta Mendizabal.

**Votan en contra:** D<sup>a</sup> Maria Luisa Arija Soutullo y D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui

**Se abstienen:** D. Mikel Mariskal Balerdi y D. José Manuel Lizarraga Dorda.

En consecuencia, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría, **ACUERDA:**

Aprobar la Cuenta General del Presupuesto correspondiente al año 2008

**2.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN DE 170 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL EN LA A.I.U. “36. MULIATE”.**

Examinado el Proyecto de Ejecución de 170 Viviendas de Protección Oficial en la A.I.U “36. MULIATE”, promovido por este Ayuntamiento, y redactado por el Arquitecto D. Joaquín Zubiria Sautu.

Visto el informe 93/09 de 26 de junio de 2009, emitido por el Señor Arquitecto Municipal informando favorablemente el citado proyecto.

Visto el dictámen de la Comisión de Urbanismo y Patrimonio Cultural de fecha 7 de julio de 2009, proponiendo al Pleno la aprobación del proyecto.

Sometida a deliberación la propuesta, interviene el Señor Alcalde y explica que el proyecto de ejecución de 170 Viviendas de Protección Oficial, plantea 9 portales en los que se proponen 7 viviendas para minusválidos, 15 de un dormitorio, 82 viviendas de 2 dormitorios, 62 de tres, 4 de cuatro, además se proyectan 171 trasteros y 213 aparcamientos, ascendiendo el Presupuesto General de la Obra a 17 millones de

miloi eurora igotzen dela zenbaki borobiletan. Proiektuak gainera dagozkion Segurtasun eta Osasunari buruzko azterketa, txosten teknikoa eta kalitate kontrola proposatzen ditu. Gizarte Alokairu Sozialerako proposatzen diren gainontzeko 25 etxebizitzaren exekuzio proiektuan minusbaliatuentzako etxebizitza bat dago, 10 etxebizitza logela bakarrekoak, 7 etxebizitza 2 logelakoak eta 7 etxebizitza 3 logelakoak; kasu honetan gainera 25 trastetegi eta 28 aparkaleku proposatzen dira, eta aurrekontua hiru milioi eta erdi eurotara igotzen da zenbaki borobiletan.

Gainera adierazi du abuztuko lehenbiziko asteetan beste Osoko Bilkura bat egitea espero duela, batetik bi lur-zati horien gaineko Azalera Eskubidearen Eratzea onartzeko, eta bestetik Azalera Eskubide hori Besterentzeko lehiaketa burutzeko Baldintza Plegua onartzeko, 2010ean etxebizitzak eraikitzeari ekiteko.

Mariskal jaunak hartu du hitza eta aipatu du, beti esan dutena, pentsatzen dutela Alokairu Sozialeko etxebizitza kopuruak dezente gorago joan behar zuela, planteamendu orokor bat eta etxebizitza politika orokor baten barrenean sartu beharko lukeela, eta gainera gizarte honetan krisi famatu honekin gertatzen ari dena ikusita, ikusten ari direla azkenean planteamendu horiek berez gauza asko konponduko lituzketela eta ohitu garena modu eskas batean etxebizitza politika egiten. Adierazi du baiezkoa emango diotela ezinbestekoa ikusten dutelako hau aurrera eramatea, behar handia dagoelako, baina berriro ere aipatu du ez daudela ados alokairuari eskaintzen zaion etxebizitza kopuruarekin.

Alkate jaunak hartu du hitza eta Mariskal jaunari erantzunez esan du ez duela uste haien planteamendua ezberdina denik, Eusko Jaurlaritzak aipatu zuela horrelako promozioetarako %10 alokairuan jartzea, eta haiek %25 jarri dutela. Hala eta guztiz ere, uste du hau dela Hondarribian egingo den lehenbiziko Gizarte Alokairua, eta ikusiko dela

euroen en número de redondos. El proyecto recoge también el correspondiente Estudio de Seguridad y salud, informe técnico y control de calidad. El Proyecto de ejecución de las 25 viviendas restantes que se plantean en Alquiler Social consta de una vivienda para minusválidos, 10 viviendas de un dormitorio, 7 viviendas de 2 dormitorios y 7 viviendas de 3 dormitorios, en este caso se plantean además 25 trasteros y 28 plazas de aparcamiento, y el presupuesto asciende a tres millones y medio de euros en números redondos.

Igualmente manifiesta que espera en las primeras semanas de agosto, venir a un nuevo Pleno para aprobar en primer lugar la Constitución del Derecho de Superficie sobre estas dos parcelas, y el Pliego de Condiciones para realizar el Concurso de Enajenación de ese Derecho de Superficie y poder así iniciar la construcción de las viviendas en el año 2010.

Toma la palabra el Señor Mariskal y menciona lo que siempre han dicho, que el número de viviendas de Alquiler Social debería ser bastante más alto, que deberían introducirlo en un planteamiento general y en una política de vivienda general, y que además viendo lo que está ocurriendo en nuestra sociedad con la famosa crisis, están viendo que esos planteamientos arreglarían en sí muchos problemas y que nos hemos acostumbrado a hacer una política de vivienda de un modo pobre. Dice que votarán a favor porque ven que es imprescindible llevarlo a cabo, puesto que hay una gran necesidad, pero menciona de nuevo que no están de acuerdo con el número de viviendas que se destinan a alquiler.

Toma la palabra el Señor Alcalde respondiendo al señor Mariskal que no cree que su planteamiento sea diferente, que el Gobierno Vasco les mencionó que para esa promoción se destinara el 10% para alquiler y que ellos han destinado el 25%. De todos modos piensa que este es el primer alquiler social que se realiza en Hondarribia y se verá que resultados tiene, y en la próxima

nolako harrera duen herrian, eta hurrengo sustapenean, Talaian, beste 65 etxebizitza horietan, ikusiko dela Gizarte Alokairuko etxebizitzaren kopurua handitu behar den ala ez.

Elizalde jaunak hartu du hitza eta adierazi du ez duela uste ezberdin pentsatzen dutenik etxebizitza politikan, baina kontuan hartu behar dela zer desberdintasun dagoen udalarentzat Babes Ofizialekoa egin edo Alokairuko, diru aldetik ahalegin handia eskatzen baitu. Uste du lehendabiziko promozioan, 25 etxebizitza horiekin ikusiko dela erantzuna zein den eta horren arabera jokatuko dela Talaian hurrengo 65ekin, baina beti ahaztu gabe zer nolako esfortzu ekonomikoa eskatzen duen Gizarte Alokairua egiteak.

Proposamena bozkaturik bertaraturiko zinegotziek aho batez onartu dute.

Beraz, Udalbatzak aho batez, hauxe **ERABAKI DU**:

**LEHENENGO.-** “36.MULIATE” H.E.Ean Babes Ofizialeko 170 Etxebizitza eraikitze, Udal honek eragin eta Joaquin Zubiria Sautu jaun arkitektoak idatziriko Exekuzio proiektua onartzea.

**BIGARREN.-** Dagokion Kontratazio Espedienteari hasiera ematea.

**3.- “36. MULIATE” H.E.E.-AN BABES OFIZIALEKO 25 ETXEBIZITZAREN AURREPROIEKTUAK IDAZTEKO EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

“36.MULIATE” H.E.Ean Babes Ofizialeko 25 Etxebizitza eraikitze, Udal honek eragin eta Joaquin Zubiria Sautu jaun arkitektoak idatziriko Exekuzio proiektua aztertutik.

promoción, en Talaia, en las restantes 65 viviendas, se verá si hay que aumentar o no el número de viviendas de Alquiler Social

Toma la palabra el Señor Elizalde y responde que no piensa que opinen de distinta manera sobre la política de vivienda, pero que hay que tener en cuenta qué diferencia supone al Ayuntamiento realizar viviendas de Protección Oficial o de Alquiler Social, puesto que supone un gran esfuerzo económico. Piensa que en la primera promoción se verá cuál es el resultado con esas 25 viviendas, y en base a ello se actuará en Talaia con las próximas 65, pero sin olvidar siempre qué esfuerzo económico supone el Alquiler Social.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad de los concejales asistentes.

En consecuencia, el Ayuntamiento Pleno por unanimidad, **ACUERDA**:

**PRIMERO.-** Aprobar el Proyecto de Ejecución de 170 Viviendas de Protección Oficial en la A.I.U “36. MULIATE”, promovido por este Ayuntamiento, y redactado por el Arquitecto D. Joaquín Zubiria Sautu.

**SEGUNDO.-** Incoar el correspondiente expediente de Contratación

**3.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN DE 25 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL EN LA A.I.U. “36. MULIATE”.**

Examinado el Proyecto de Ejecución de 25 Viviendas de Protección Oficial en la A.I.U “36. MULIATE”, promovido por este Ayuntamiento, y redactado por el Arquitecto D. Joaquín Zubiria Sautu.

2009ko ekainaren 26an, Udal Arkitekto jaunak aipaturiko proiektuari buruzko aldeko 92/09 txostena ikusirik.

Hirigintza eta Kultur Ondare Batzordeak, Udalbatzari proiektua onar dezan proposatuz 2009ko uztailaren 7an emandako diktamena ikusirik.

Proposamena bozkaturik bertaraturiko zinegotziek aho batez onartu dute.

Beraz, Udalbatzak aho batez, hauxe **ERABAKI DU**:

**LEHENENGO.-** “36.MULIATE” H.E.Ean Babes Ofizialeko 25 Etxebizitza eraikitzeko, Udal honek eragin eta Joaquin Zubiria Sautu jaun arkitektoak idatziriko Exekuzio proiektua onartzea.

**BIGARREN.-** Dagokion Kontratazio Espedienteari hasiera ematea.

#### **4.- HEGO AMERIKAN PROIEKTUAK ETA EKINTZAK BURUTZEKO HONDARRIBIKO ETA IRUNGO UDALEN ETA BIDASOA BIZIRIK-EN ARTEKO LANKIDETZA ESPARRURAKO 2009KO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Hego Amerikan Proiektuak eta Ekintzak burutzeko Hondarribiko eta Irungo Udalen eta Bidasoa Bizirik-en arteko Lankidetzaren Esparrurako 2009ko hitzarmen Proiektua aztertutik.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak, Udalbatzari proiektua onar dezan proposatuz 2009ko ekainaren 2an emandako diktamena ikusirik.

Visto el informe 92/09 de 26 de junio de 2009, emitido por el Señor Arquitecto Municipal informando favorablemente el citado proyecto.

Visto el dictámen de la Comisión de Urbanismo y Patrimonio Cultural de fecha 7 de julio de 2009, proponiendo al Pleno la aprobación del proyecto.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad de los concejales asistentes.

En consecuencia, el Ayuntamiento Pleno por unanimidad, **ACUERDA**:

**PRIMERO.-** Aprobar el Proyecto de Ejecución de 25 Viviendas de Protección Oficial en la A.I.U “36. MULIATE”, promovido por este Ayuntamiento, y redactado por el Arquitecto D. Joaquín Zubiria Sautu.

**SEGUNDO.-** Incoar el correspondiente expediente de Contratación.

#### **4.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL CONVENIO MARCO DE COOPERACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE HONDARRIBIA, IRUN Y BIDASOA ACTIVA PARA EL DESARROLLO DE PROYECTOS Y ACTIVIDADES EN AMÉRICA LATINA 2009.**

Examinado el Proyecto de Convenio Marco de Cooperación entre los Ayuntamientos de Hondarribia, Irun y Bidasoa Activa, para el Desarrollo de Proyectos y Actividades en América Latina 2009.

Visto el dictámen de la Comisión de Servicios Sociales de fecha 2 de junio de 2009, proponiendo al Pleno la aprobación del citado Convenio.

Era berean, A-1879/09ren kontura Aurrekontu kontsignazioa badagoela ikusirik.

Proposamena bozkaturik bertaraturiko zinegotziek aho batez onartu dute.

Beraz, Udaltzak aho batez, hauxe **ERABAKI DU**:

**LEHENENGO.-** Aipaturiko Hitzarmena eta Hondarribiko Udalak ordaindu beharreko **SEI MILA EUROKO KOPURUA (6.000 €)** onartzea, **hau da**, proiektuen aurrekontu osoari (30.000,00 €) dagokion %20, A-1879/09ren kontura 1.0800.481.313.90.01 2009 03467 Erakundeetara Transferentziak diru-sailetik.

**BIGARREN.-** Hego Amerikan Proiektuak eta Ekintzak burutzeko Hondarribiko eta Irungo Udalen eta Bidasoa Bizirik-en arteko Lankidetzaren Esparrurako 2009ko Hitzarmenaren sinadurarako Alkate jaunari ahalmena ematea.

**HIRUGARREN.-** Erabaki honen berri interesatuei jakinaraztea.

**5.- 26.000 € DITUEN “KIROL ENTITATEEI TRANSFERENTZIAK” PARTIDA BEREIZTEKO, ALEGIA HONDARRIBIA ARRAUN ELKARTEA ETA “CLUB DE JUDO AMA GUADALUPEKOA”RI BIDERATZEKO PROPOSAMENA.**

26.000 € dituen “Kirol Entitateei Transferentziak” partida bereizteko, alegia Hondarribia Arraun Elkartea eta “Club de Judo Ama Guadalupekoa”ri bideratzeko espedientea aztertutik.

Kirol teknikariak partida hori bereizteko proposatuz 2009ko maiatzaren 26an emandako 50/09 txostena ikusirik.

Kirol Batzordeak, Udaltzari partida bereiz dezan

Vista asimismo, la existencia de Consignación Preupuestaria con cargo al A-1879/09.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad de los concejales asistentes.

En consecuencia, el Ayuntamiento Pleno por unanimidad, **ACUERDA**:

**PRIMERO.-** Aprobar el citado Convenio y la cantidad de **SEIS MIL EUROS (6.000,00 €)** a abonar por el Ayuntamiento de Hondarribia, correspondiente a la aportación del 20% del presupuesto total de los proyectos (30.000,00 €) con cargo con cargo al Autorizado A-1879/09 de la partida de Transferencias a Instituciones, 1.0800.481.313.90.01 2009 03467.

**SEGUNDO.-** Facultar al Señor Alcalde para la firma del Convenio Marco de Cooperación entre los Ayuntamientos de Hondarribia, Irun y Bidasoa Activa, para el Desarrollo de Proyectos y Actividades en América Latina 2009.

**TERCERO.-** Notificar el presente acuerdo a los interesados.

**5.-PROPUESTA PARA PARTICIÓN DE LA PARTIDA DE 26.000 € DE “TRANSFERENCIAS A ENTIDADES DEPORTIVAS” ENTRE HONDARRIBIA ARRAUN ELKARTEA Y EL CLUB DE JUDO AMA GUADALUPEKOA.**

Examinado el expediente para la partición de la partida de “Transferencias a Entidades Deportivas” (26.000,00 €) entre Hondarribia Arraun Elkartea y el Club de Judo Ama Guadalupekoa.

Visto el informe 50/09 de 26 de mayo de 2009, emitido por la Técnico de Deportes proponiendo la partición de dicha partida.

Visto el dictámen de la Comisión de Deportes de

proposatuz 2009ko ekainaren 23an emandako diktamena ikusirik.

Proposamena bozkaturik bertaraturiko zinegotziek aho batez onartu dute.

Beraz, Udalbatzak aho batez, hauxe **ERABAKI DU**:

**LEHENENGO.-** “**Kirol Entitateei Transferentziak**” partida honela xehatzea:

- Hondarribia Arraun Elkarteari, Kirol ekipamenduak erosteko **HOGEI MILA EURO (20.000,00€)**.
- Club de Judo Ama Guadalupekoari, Tatamiak erosteko, **SEI MILA EURO (6.000,00€)**.

**Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du bederatzi eta erdietan, neuk ziurtatzen dudana akta hau eginez.**

**O.E. / VºBº  
ALKATEA / El Alcalde,**

**-Aitor Kerejeta Cid-**

fecha 23 de junio de 2009, proponiendo al Pleno la aprobación de la partición de la partida.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad de los concejales asistentes.

En consecuencia, el Ayuntamiento Pleno por unanimidad, **ACUERDA**:

**PRIMERO.-** Aprobar el siguiente desglose de la partida de “**Transferencias a Entidades Deportivas**”:

- Hondarribia Arraun Elkartea, para la compra de Equipamientos Deportivos **VEINTE MIL EUROS. (20.000,00€)**.
- Club de Judo Ama Guadalupekoa, para la compra de Tatamis **SEIS MIL EUROS. (6.000,00€)**.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las nueve horas y treinta minutos, extendiéndose esta acta que certifico.**